

Gatazkaren konponbidea sustatzeko nazioarteko konferentzia →



Jonathan Powell, Gerry Adams, Bertie Ahern, Kofi Annan, Gro Harlem Brundtland eta Pierre Joxe, nazioarteko konferentziaren ebazpena aurkeztu ondoren, Aieten. JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Hiru eskaera bakerako

1 ETari. Arma betiko uzteko eskatu diote ETari, eta elkarriketarako deia egiteko Frantziako eta Espainiako gobernuei, «soilik gatazka armatuaren ondorioez aritzeko».

2 Gobernuei. ETak adierazpena egingo balu baiezkoa eman eta elkarriketak zabaltzeko deia egin diete Espainiari eta Frantziari.

3 Alderdiei. Eragile ez-bortzatzaila eta ordezkari politikoak biltzea eta herritarrei kontsultatzea iradoki dute, aro berri bat sortze aldera.

Bost puntuko ebazpen bat aurkeztu du Aieten konponbidea sustatzeko nazioarteko konferentziak, hiru eskakizun nagusirekin. ETari, jarduera armatua betiko utziko duela iragarzteko eskatu diote, eta elkarriketarako deia egiteko Espainiako eta Frantziako gobernuei, «soilik gatazka armatuaren ondorioez aritzeko». Madrili eta Parisi, ETak adierazpen hori

egingo balu baiezko erantzuna eman eta elkarriketak zabaltzeko eskatu diete. Eta eragile eta ordezkari politikoak bil daitezzen ere iradoki dute, gai politikoak eztabaidatu eta herritarrei kontsultatzen, «horrek guztiak gatazkarik gabeko aro berri bat sortzen lagun dezake-elako». Halaber, «zauri pertsonal eta sozialak sendatzeko lagungarria delako», eginiko mi-

naren eta «biktima guztien» aitortza ere eskatu dute Kofi Annan, Jonathan Powell, Bertie Ahern, Gerry Adams, Gro Harlem Brundtland eta Pierre Joxek. Beraiek emandako «gomendioak» nola bideratzen diren aztertzeke jarraipen batzorde bat osatzeko prest agertu dira nazioarteko konferentziako sei kideak. Geratzeko asmoz etorri dira. **◉ 2-13**

ANALISIAK

Konponbidearen leihoa zabal-zabalik
Pello Urzelai

Transatlantikoaren mugimendua
Imanol Murua Uria



Patxi Lopez

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

«ETari bere jarduera terrorista bukatzeko eskatu izana da konferentziako gauzarik garrantzitsuenak»



Iñigo Urkullu

EAJren EBBko presidentea

«ETak behin eta berriz aldarrikatu du nazioarteko adituaren parte hartzea; entzun dezala zer dioten»



Pello Urizar

EAko idazkari nagusia

«Unea aprobetxatu egin behar da; gainontzean, euskal gizarteak ez luke ulertuko»



Antonio Basagoiti

EAeko PPKo presidentea

«Agiriko bost puntuak bat datoz ETA eta Batasunaren tesiekin; onartezina da edozein demokratarentzat»